

## CHOMIÑ ETA PREMIÑ TRABENAN BERTSOETAN



### LENENGO JARDUN ALDIA

- Chomiñek.* Izate arren iztun, ernai ta trebea,  
 ¡Ay! banitza abade, edo bai praillea!  
 Jayotzaz ni naiz, Premiñ, pobreen umea,  
 Eskolarikan ere ikasi gabea.
- Premiñek.* Ni ere gaztetatik langille naiz izan,  
 Artzaiñ, serrari eta gaur nekazaritzan,  
 Ni lakoak ¿non egiñ egoki itzikan?  
 ¿Obe enuke egon mutu baten gisan?
- Chom.* Ala ere zu zera kantari yayoa,  
 Orregatikan dezu estimazioa,  
 Sarritan izaten zu zera motiboa  
 Alegratzeko triste zegoan auzoa.
- Prem.* Chomiñ, zorionean gaur gera juntatu,  
 Bestela eneukan nik norekin kantatu,  
 Zu ikustearekin asko nazu poztu,  
 Au lako umorea beti zait gustatu.
- Chom.* Burrugarikan ez det, iñoiz deseaten,  
 Alako gauzik Premiñ, ez det ondo artzen;  
 Baña bertsolariaz banaiz peleatzen,  
 Ordu luzeak pozez ditut igarotzen.
- Prem.* Bertsolari ederra, nonbait zerade zu,  
 Leku askotan Chomiñ ala det aditu;

- Arrazoiakin ote zaituzten famatu,  
Piskabat nai zinduket nik ere probatu.
- Chom.* Zenbaitek duten maite pelotalekua,  
Beste askok kafea, ez guchik jokua;  
Gizon danak daukate norberen gustua,  
Premiñ, proba nazazun bota zuk berttua.
- Prem.* ¡O! baneuka orainche askoren grazia!  
Perrando amezketarrak bezelakosia  
Isuelaren gisa ona etorria!  
Pasatzeko zurekin aste bat guzia!
- Chom.* Munduan doatsu da, kantuan dagona,  
Errukarritzat daukat triste dan gizona;  
Alegrantzia daki nork nai dala ona,  
Bestela ¿zertan dago gure zoriona?
- Prem.* ¿Nor bizi da obeto choricho bat baño?  
Au kantatzen ari da goizik gaberaño;  
Alferrik chingurria izan langillago,  
Onen kantarik ¿zeñek entzun du gaurdaño?
- Chom.* Ori da ori Premiñ, bertso egokia,  
Ortarakoche dezu zere etorria;  
Mingañian dakazu ugari ezitia,  
Chori ez izan arren zera kantaria.
- Prem.* Chingurriak, beti du egiñ alegiña,  
Choria da alferra, ta buru ariña;  
Bizi oi dala ondo da gauza jakiña,  
Añ ondo ez dalako jazten erregiña.
- Chom.* Nik ere choricho bat badaukat echean,  
Kantatzen dakiena ederki goizean;  
Baña kantatzen dezu zuk berdiñ gabeen,  
Ego gabeko chori zerade lurrean.
- Prem.* Zeruan ondo eta osoro egoki,  
Kantatzen dute Chomiñ arira ederki;  
Aditu nai nioke aingerucho bati,  
Oraindik ikasteko kantatzen obeki.
- Chom.* ¿Zer da gauza oberik jarduerau baño?  
Ausen da atsegiñen niretzat gaurdaño;  
Aditze arren bertso zureak ¿noraño?  
Joango nitzake ere Amerikaraño.

- Prem.* Landu gabe soroak ez digu ematen,  
Ez da nekatu gabe bertsorik ipintzen,  
Itz ederrak dituzu zuk ere billatzen,  
Noiz bait sayatu zera zu ere ikasten.
- Chom.* Bertsoak ez dirate ematen ogirik,  
Baizik askotan kalté egiten bakarrik;  
Lo egin bearrean zenbait gabetan nik,  
Denbora pasatzen det kantari alferrik.
- Prem.* Nik bada, inbidia det kantariena,  
Naiz jakiñ artarako jayo enaizela;  
Ekarri ezagatik ezercho echera,  
Beñik beiñ pasatzen da umore ederra.
- Chom.* Ez daukat lotsarikan iñon esateko,  
Zurekin enaizela kantuz berdintzeko;  
Lenengotik egon naiz beldurrez asteko,  
Zu zera zu, gizona, erria onratzeko.
- Prem.* Jaungoikoak gizonok, ez ginduen egiñ,  
Asmarioan eta adimentuz berdiñ;  
Bertso onak moldatzen zuk dituzu ariñ,  
Erdi bat asmatzeko nik badet zeregiñ.



## CHOMIÑ ETA PREMIÑ TRABENAN BERTSOETAN



### BIGARREN JARDUN ALDIA

- Chomiñek.* Premiñ, zu esku utsaz, eta nik chisteraz,  
Zerbait egingo nuke onela bentajaz,  
Baña, berdiñean nik, ¿nola joka zuzaz?  
Egiñ arren zerchobait gichiago danaz?
- Premiñ.* Saka orren urruti, botatzen badezu,  
Errestatzeko diña Chomiñ, ni enazu;  
Erruki piskacho bat arren arzadazu,  
Zergatik aspaldian ez dedan jokatu.
- Chom.* Ezingo det atera gaur andiagorik,  
Zergatik eztarria dedan zerraturik;  
Lenaz ause nai nuke ipiñi garbirik,  
Orretarako zerbait edan bear det nik.
- Prem.* Orra, nere basotik Chomiñ, zazu edan,  
Bertsolari bezela nai dizut nik eman;  
Badakit andien bat nonbait nola zeran,  
Gaur zaude kantatzeko sekulako eran.
- Chom.* Eskerrak borondate eder orregatik,  
Edango det piska bat baso orretatik,  
Urrengoa edango zuk dezu niretik,  
Biok izan gaitean adiskide gaurtik.
- Prem.* Probecho on deizula dizut deseaten,  
Iñoren gauza charrik ez det nik eskatzen;  
Nai nuke piskacho bat pizkortu zaitezen,

- Umore on batekin jostatu gaitezen.
- Chom.* Premiñ, ardoa baño obe nuen ura,  
Zergatik ez dakian egiten burura;  
Ardoarekin asko munduan galdu da,  
Moskorraz eroririk bideetan putzura.
- Prem.* Gauza guztiak daude merituz beterik,  
Jaunak alasen dauzka denak orniturik,  
Gaisoa pizkortzeko ez dago mutillik  
Ardoaz berdiñtzeko lurrean besterik.
- Chom.* Premiñ, uraz bururik ez da iñoiz galdu,  
Ardoak askorekin kalte egiñ aldu,  
Norbaitek nik bezela nai badu argaldu  
Ardoa utzi eta urakiñ apaldu.
- Prem.* Ardoak ere baitu ugari bentajak,  
Urak ez ditu bear danak alabantzak;  
Ardorik ezbalitza ¡agur! gure kantak,  
¡Agur! erromeriak, trabena ta plazak.
- Chom.* Ardo eta ogirik iñoiz jan ez arren,  
Familia ederrak baditugu emen,  
Mutillik ederrenak ¿non dira azitzen?  
Artoz mantenduetan nik ditut arkitzen.
- Prem.* Artoaren aldean garia nagusi,  
Ogi gabe gizonik ondo ezta bizi,  
Naiz ogi zaleari deitu begi zuri,  
Artoak arpegia ¿ez du jartzen ori?
- Chom.* Ez det charrik esango garien gañean,  
Gizonik altuenak ez dira kalean,  
Jigante bat izan da euskaldun lurrean;  
Bera Altzo-n jayo zan baserri batean.
- Prem.* Egia da artoak mutill morroskuak  
Azitzen dituala, ikaratzekuak;  
Baña ogiz balira izan mantenduak,  
Menturaz asko ziran Sanson añakuak.
- Chom.* Ardo ta ogizale nola Premiñ, zeran,  
Orregatik maiz zaude onela trabenan,  
Andrea umeakin negarrez echean,  
Zeralako emendik irtetzen goizean.
- Prem.* Besteren paltak Chomiñ jartzen plateran,

- Abia zera noski ikusi ditean;  
Ez da utsik gabeko gizonik lurrean,  
Danok degu zer eman kontu azkenean.
- Chom. Egia esan dezu oraingo bertsoan,  
Baña danak dakite nor zeran auzoan;  
Joan dari igandean karobi zuloan  
Nola erori ziñan jakin zan beingoan.
- Prem. Gaur ez dago besterik, iñor juzgatzea,  
Ta norberen burua santu egitea,  
Esana ez da asko, bear izatea,  
Umillak gorde nai du bere birtutea.
- Chom. Arrazoia daukazu, ni ere onenean,  
Zu bezela nijoa zabuka bidean,  
Erortzen baldin banaiz zuloren batean,  
Lagun zadazu Premiñ, zutitu naitean.
- Prem. Alprojetan gaur dira paltak erabiltzen,  
Projimoen guztiak aurrean ipintzen,  
Norberenak atzean estali ditezen,  
Argatik gaur mundua da gaizki ikusten.



gados, interminables y ensordecedores, el *gran* Chiquito tiene por toda contestación una reverencia hecha con la cabeza y un encogimiento de hombros que convierte la ovación de estrepitosa en delirante y rapana en locura.

Educado en Bizcaya, no entiende de saludos teatrales.

JUAN DE GARONA.

Bilbao.

## CHOMIÑ ETA PREMIÑ TRABENAN BERTSOETAN



### IRUGARREN JARDUN ALDIA

- Chomiñek.* Izan gaitean Premiñ, beti kristau umill,  
 Iñor juzgatze arren kantuan enabill;  
 Pekatu egin baño obeki degu ill,  
 Burlakin farrarikan ez det nai eragin.
- Prem.* Dibersioz nai nuke, nik eman denbora,  
 Iñor ofendi gabe pasarikan broma;  
 Alabagarria da egitea orla,  
 Bestelako konturik ez det nai iñola.
- Chom.* Banitza zu bezela echejaun andia,  
 Izan gabe maizter bat errukigarria;  
 Orduan zure gisa munduko aldía,  
 Emango nuke noski kontentuz guztia.
- Prem.* ¿Nola sinistu Chomiñ gaur zure negarra?  
 ¿Ez dezu artzen sendo arto ta sagarra?  
 Errenta idukirik osoro kaskarra  
 ¿Ez dezu azi ere famili azkarra?
- Chom.* Nekazariak bear luke obeto jan,

- Zergatik beragatik denok bizi geran,  
Baña ark egin arren guztientzako lan,  
¿Gaizkien ez du jaten, ta charkien edan?
- Prem.* Esan dizut len ere Chomiñ, lagun zarra,  
Ez dezazula gaur jo, aiñ triste gitarra,  
Askok balu zuk dezun eche ta baztarra,  
Lasa botako luke tirri nola tarra.
- Chom.* Egia da, bai, Premiñ, ni gizon pobrea,  
Naizela baña, ez aiñ tristuraz betea,  
Baizikan bertso onak kantatu zalea,  
Naiz izan beti maizter dirurik gabea.
- Prem.* Chomiñ, ez det esango nor dan aberatsa,  
Ondo erabakitzen au ez da erraza,  
Ez da premiazkoa euki asko gauza,  
Alegrentzia gabe bizia da latza.
- Chom.* Nere aita lanean beti izan zan ari,  
Baña etzuan poltsa iñoiz izan lodi,  
Pobrezan zuelako ark beti igari,  
Orain Zeruan dauka gloria ugari.
- Prem.* Ni ere bizi arren, nere baserrian,  
Enaiz aberastuko soroko lanian,  
Goizean goiz jaikita berandu gabean,  
Probechu gichirekiñ etzaten naiz oyan.
- Chom.* Berrakin gichi da Premin, aberastzen,  
Ez badu beste tratu onen bat billatzen;  
Eta nik nola onik ez dedan ikusten,  
Erremedio gabe pobre noa illtzen.
- Prem.* Pobreak ere ziran nere gurasuak,  
Eta pobreakoak ayen aurrekuak,  
Baña, pobreak dira zorionekuak,  
Badituzte onean artzen trabajuak.
- Chom.* Gauzarik onena da konformidadea,  
Naiz izan aberatsa, naiz izan pobrea;  
Ause da birtute bat parerik gabea,  
Zuzen billatutzeko zerura bidea.
- Prem.* ¡Ai! banengoke anchen ondo bizitzeko  
Baña, beldurrez nago beti ni illtzeko,  
Eta ill egin bear ara igotzeko,



- Uso nai nuke izan bizik egatzeko.
- Chom.* Au da gauza aundi bat, nik ez det ikusi  
Mundu onetan guztiz ondo danik bizi,  
Danak billatzen ditut nonbaiten negarti,  
Laster egin dezagun emendik igesi.
- Prem.* Ikusten dira emen aberats ziranak,  
Egun batik bestera pobreturik danak,  
Guztiok baditugu bizitzeko lanak,  
Bakarrik ondo daude ondo ill ziranak.
- Chom.* Aspaldian nola ni naizen gurasua,  
Zartzean ezagutu det piskat mundua.  
Gazte denboran neukan aizezko burua,  
Illea zuritzean bete zait kaskua.
- Prem.* Broman dagoenean piskaten gizona,  
Dago alegere ta dauka umore ona,  
Ongi litzake beti bizitzea orla,  
Baña bueltaka dabill au dalako bola.
- Chom.* Premin, bene benetan bola da mundua,  
Jira egiñaz berau aurrera dijua,  
Udaren ondorean badator negua,  
Baña ez da biurtzen denbora galdua.
- Prem.* Orisen da egi bat dudarik gabia,  
Geyenoentzat ere da negargarria,  
Ez dalako ezautzen bere baloria,  
Zeñekiñ berdintzeko utsa dan urria.



## CHOMIÑ ETA PREMIÑ TRABENAN BERTSOETAN



### LAUGARREN JARDUN ALDIA

- Chomiñek.* Zertako bertsoetan ote diot ekiñ?  
 Beldurtzen naiz zoratu ote naizen egiñ;  
 ¿Non daukat ikasia? noiz det asko jakiñ?  
 ¿Nola jokatuko det zulako batekiñ?
- Prem.* Aditu eta ondo zerorren bertsoa,  
 Chomiñ, eranzuteko prestatzera nua;  
 Baña zure aurrean nastzen zait burua,  
 Ala ere jo zazu nai dezun puntua.
- Chom.* Kukuak baten zidan jo puntua *kuku*,  
 Eranzun nion ez dek jan naikoa suku;  
 Baña joten badezu zerorrek *ujuju*  
 ¿Zeñek adituko du nere *kukurruku*?
- Prem.* Zozo lelo batek beñ, niri ere zorzor,  
 Jo arren, esan nion gezurra diok or;  
 Ordia ¿nola egin zuri orren gogor,  
 Indarretan zuretzat ni ezpanaiz iñor?
- Chom.* Chioak beste baten deitu zidan *chio*,  
 Isilldu nuen laster esanaz *adio*;  
 Baña zuk nola dezun jotzen *chorrochio*,  
 Errebuelterako nik ez det balio.
- Prem.* Neguta<sup>1</sup> zirzill batek asi arren egiñ,  
 Bertsorikan ez daki bukatutzen Chomiñ;

(1) Neguta=Chota.

- Baten kantatu zidan, bakar bakarrik *Chuiñ*,  
 ¡O! baña negutakiñ zu etzera berdiñ!
- Chom.* Loro berritsua da beti izango loro,  
 Erdia bada zintzo, beste erdia zoro;  
 Zu berriz zeralako beti birigarro,  
 Kantatzen dezu Premiñ, naste gabe klaro.
- Prem.* Chirrimirri zatar bat, chit zait tentalari,  
 Baña farra egiten utsik diot ari;  
 Chomiñ, zerorren gisa balitza kantari,  
 Ipiñiko ninduke lotsatuta gorri.
- Chom.* Zekor kopeta beltzak, niri bein puntua,  
 Jorikan altu, jarri ninduen gortua,  
 Baldin eiten badezu zuk aren orrua,  
 Zekorrak lakoakin kantuan enua.
- Prem.* Erle batek eginda ni nor nitzan jakiñ,  
*Burrun burrun* erronkaz laster zidan ekiñ;  
 Izpiz arek bezela eiten badezu miñ,  
 Igesi bearco det zuk baño len egiñ.
- Chom.* Astoak egiten dit sarritan arrantza,  
 Baña kantuan ari falta zayo gatza;  
 Premiñ, zuk nola dezun kantarien antza  
 Biok egingo degu bertsoan jolasa.
- Prem.* Kirkircho batek burlaz bein egin zidan *kir*,  
 Oiñpean zapalduta utzi nuen umill;  
 Sentimentua daukat nuelako nik ill,  
 Bengantzarik enion egin bear Chomiñ.
- Chom.* Chakurcho batek niri ekin zidan *chauchau*  
 Jarraituta ortzakin baita urratu prakau;  
 Nik ere aserreaz jazorikan ank au,  
 Jota bota niozkan ortzik onenak lau.
- Prem.* Ardi mantsoak beti kantatzen dit *bee, bee*,  
 Eranzun oi diot nik zu zaitut chit maite;  
 Izan gaitezen Chomiñ alasen be-zale,  
 Umillak zeruetan jasoko dirade.
- Chom.* Egazti ta abere askok oi nau tenta,  
 Danai eman oi diet, baña errespuesta;  
 Gaurko oni ematea orren errez ez ta,  
 Naikoa lan darabilt billatutzen beta.

- Prem.* Atzo ibilli nitzan ni berriz basuan,  
Chori bat arrapatzen iru bat orduan;  
Azkenez ere etzan erori lazuan,  
Gaurko au ezingo det nik artu zepuan.
- Chom.* Premiñ, enaiz kantari baña bai eiztari,  
Eskopeta det ona, kañoiak ditu bi,  
Zuzen apuntatuta ¡o! nik zenbait chori,  
Mokua ebakita mutu dedan jarri!
- Prem.* Zenbat ateri nik ots, ainbat maratilla,  
Topatzeko ederra Chomiñ, da mutilla;  
Enekien ziñanik zu orren abilla,  
Beste bat zu lakorik ez det iñon billa.
- Chom.* Bertso batzuek nekez ditut borobildu,  
Buruko matasa gaur egin det arildu;  
Orain nai eta nai ez bear det isilldu,  
Nekatu naiz iya ta nereak egin du.
- Prem.* Saltoa nik ere det asko biotzean,  
Ikusirikan jende aundia aurrean;  
Utsegiñ baldin badet izchoren batean,  
Barkazioa nai det sosega naitean.



## CHOMIÑ ETA PREMIÑ TRABENAN BERTSOETAN



### BOSTGARREN JARDUN ALDIA

- Chominek.* Obe zan ezbanitza abia kantari,  
Ala izatekotan danen farragarri;  
Erregalorik iñork ez digu ekarri,  
Kalte egiñ bearko diogu poltsari.
- Prem.* ¿Zertatik inbidia det kantariena?  
¿Enitzake biziko obeki bestela?  
Trabenetan askotan jardunik onela,  
Makal ipintzen badet poltsacho gizena?
- Chom.* Nik ere poltsa gaur det ekarri chikia,  
Iñoiz iduki arren sendo ta lodia;  
Ta bera nola dedan leortua iya,  
Kontua jakiñ arte nago chit larria.
- Prem.* Chomiñ, ezpadaukazu diña pagatzeko,  
Nereakin uste det degula beteko;  
Onekiñ ezpagaña berriz irichiko,  
Chamarra nago ni prest prendatzat uzteko.
- Chom.* Ez da gauza ederra, ala lotsarian,  
Gizona arkitzea aulako tokian;  
Askocho bizi arren nere inbidian,  
Beti nabill ni ere bajucho neurrian.
- Prem.* Chomiñ, nik ere ez det sekulan beldurrik,  
Iñoiz sartuko danik gurean lapurrik;  
Familia azteko besterik ez det nik  
Baba, arto ta urdaya, echean bakarrik.

- Chom.* Irabazia nola alasen gastua,  
Duenak eramaten lasa du mundua;  
Egin nai lukeanak gustora pausua,  
Zapata bearko du oña aiñakua.
- Prem.* Gauzarik onena da beti dezentzia,  
Ondasunen neurrian jartzea jantzia;  
Askok iduki arren markes iduria  
Ez gichik echeetan dute miseria.
- Chom.* Iya mundu au dago lujoaz galdurik,  
Ez da gaur ezagutzen morroi ta nausirik;  
Neskameak dabilta echekoandreturik,  
Ez da erraz billatzen ezkongai bat onik.
- Prem.* Zenbait eche diraden beren kulpaz galtzen,  
Chikiak izan eta aundiai jarraitzen;  
Ni beñik beñ enoa orrela izaten,  
Zorrak paga ezinda lotsatu enaiten.
- Chom.* Gaur arte ¿nork jakin du zer dan *uelgea*?  
Enredo zalez dago mundua betea;  
Nik nai det osasuna, lana ta pakea,  
Engañu gaberikan denbora ematea.
- Prem.* Ardorik ez badet nik, edan oi det ura,  
Orregatik gerrarik iñoiz ez det gura;  
Pazientziaz nola goazen zerura,  
Piskat sufritu arren ez dio ardura.
- Chom.* Ni ere anditze arren enoa iñora,  
Lorik ez det galduko igo nairik gora;  
Nagusi izan bailo mendeko da oba,  
Naikoa det nik banaiz guraso bat ona.
- Prem.* Milla esker zor diot nik berriz Jaunari  
Zeren emazte ona eman zidan neri;  
Zinchoa oso eta lujoz ez geyegi,  
Dotriña irakasten onena umeari.
- Chom.* Bai, Premiñ, bizi zera ondoen auzoan,  
Atzo esaten batek ala ziarduan;  
Zu lako batek palta eiten du onduan,  
Estutasun gaizto zeñ, premia orduan.
- Prem.* Chomiñ, emaztea det osoro prestua,  
Erremediatzeko beti beartsua;

- Igaz izanagatik urte eskaschua,  
Amaikachori dio zabaldu eskua.
- Chom.* Orlakoen bitartez Jaunak gobernatzen,  
Ditu pobreak ere galdu ez ditezen;  
Egaztiak baditu ederkiro jazten,  
Gurekiñ ¿nork sinistu chit dala aztutzen?
- Prem.* Berberak dio Chomiñ, eska dezagula,  
Jotzeko atea ta entzungo zaigula;  
Fedea ezpagendu piskat otzituba,  
Erneguz ¿zeñek luke galduko buruba?
- Chom.* Jakin bear genduke kontentu osuan,  
Ez dala bat arkitzen naiz egon tronuan;  
Ez dala gure dicha lureko diruan,  
Jauna laztan badegu, bai beste munduan.
- Prem.* Chomiñ, nik oi det koplau kanta beti beti,  
Aberats enaiz baña, aiñ gichi negarti;  
Nere aldean daude dirudunak gaizki,  
Arrosak bizi dira arantzakin nasi.



## CHOMIÑ ETA PREMIN TRABENAN BERTSOETAN SEIGARREN JARDUN ALDIA

---

- Chomiñek.* Lau bertso bota ditu, orra bost garrena,  
Ez dakit au dan charren, ala dan onena;  
Mingañ au ez det zorrotz, balitza eztena,  
Elitzake kantuan izango motzena.
- Prem.* Abo ichitik ez da, eulirikan sartzten,  
Mutuak ez du iñoiz izketan erratzen;  
Iturrira dabillan charroa bada austen,  
Ni ere bertsoetan laster naiz erortzen.
- Chom.* Ez da Premiñ, uts ori, ain sentigarria,  
Lanak dakarrelako bakarrik ogia;  
Bertsoak gatik illko litzake guztia,  
Gosez baldin balego nire pamillia.
- Prem.* Itzezko iturri bat dezu iruditzen,  
Zure agotik pozik Chomiñ det edaten;  
Poto chiki bat baño ni nola enaizen,  
Iñork edan ezkeru, leor naiz gelditzen.
- Chom.* Ez det iñoiz ikusi au lako ibairik,  
Ezin dedalako gaur zuretzat presarik;  
Ni naiz chirriocho bat, mendian jayorik,  
Arricho batek gero bidea galtzen dit.
- Prem.* Ez det ekarri ona, aiñ sare chikia,  
Arraptzea gatik legatz bat aundia;  
Ez dedala artuko, nago igarria,  
¿Zerekin Chomiñ egin bigar bijillia?
- Chom.* Niri ere gustatzen asko zait arraña,  
Baña, danen artetik, geyen amorraña;  
Nola arrapatzeko, palta dedan maña,  
Nik beintzat makallauaz bearko amaña.



- Prem.* Chomin, nire aldean zu zera trebia,  
Kanturako daukazu bakana dan doia;  
Zera kanarioa, ni ontz bat tristia,  
Ez det kayolan iñoiz merezi jartzia.
- Chom.* Astoak pentsa arren, dala zamaria,  
Eta ariñ egiten bera nagusia,  
Premiñ, da Premiñ, zaldi galopalaria,  
Ni jarrai ezin dedan belarri andia.
- Prem.* Bene benetan ori, ori da egia,  
Atzekoaz aurrera, balitza guztia;  
Erbiai deitu arren, zuk gaur aizeria,  
¿Noiz kendu die onek olloai bizia?
- Chom.* Erbia beti izan, da gaitzik gabia;  
Ark ez dakielako zer dan malizia,  
Aizeria bestera, dana da tranpia  
Gizona engañatzen dakian pistia.
- Prem.* Tranpian ere dakust orainchen mirua,  
Jate arren otan lo zegoan ollua;  
Baña, ollo lekuan billarik katua,  
Bizirik nekez egan irten da gaisua.
- Chom.* Nik berriz berdin dakust, arroturik arza,  
Zergatik uste duen arrapa bildotsa;  
Luzatua gantikan erpe chit zorrotza,  
Uts egin da, galdu du sekulako poza.
- Prem.* Ausen da miseria, ausen da bai pena,  
Topeka narabiltzu ari bat bezela,  
Chomiñ, baña bakizu bildotsa naizela,  
Oraindikan jateko, ez oso gizona.
- Chom.* Eguzkia danean zeruan agertzen,  
Izarrak laster dira lotsaz ezkututzen;  
Premiñ, nola eguzki, dezun iruditzen,  
Banoa gordetzera lotsatu enaiten.
- Prem.* Ezkillak jo dezake nere agonia,  
Beldurrez jarri nazu erdi illik iya;  
Pultsurikan ez daukat, otza izerdia,  
Kukurruku jo zazu Chomiñ, kantaria.



CHOMIÑ ETA PREMIÑ TRABENAN BERTSOETAN  
ZAZPIGARREN JARDUN ALDIA

---

- Chomiñek.* Jayotzaz badakizu, dirudit mosolo,  
Gabez errondari naiz, egunez oi det lo;  
Premiñ, ontzen lekuan, jayo banitz loro,  
Kayolen baten nitzan biziko gozoro.
- Prem.* Ez naiz errechiñola, ez kanarioa,  
Ni ere naiz obeki, ontzen antzekoa;  
Baña, bizi dakigun euskal-zortzikoa,  
Kanta dezagun Chomiñ nere gogokoa.
- Chom.* Euskaldunak nai badu jarraitu euskaldun,  
Onelache kantuan bear du ezagun;  
Neurri au gurea da, berez, nere lagun,  
Eta atsegingarri aire au da nai nun.
- Prem.* Leku danetan jayo, oi dira umiak,  
Amak egiten ditu non nai bai semiak;  
Lur onetara baña aparteko doiak,  
Zerutik bota ditu Jaugoiko guriak.
- Chom.* ¿Non da beste lekutan emengo fedea?  
Au beziñ beste lur bat aiñ alegerea?  
¿Nork dauka Gernikako Arbola gurea?  
Igartu arren zarra ez degu gaztea?
- Prem.* Chomiñ ¿non da emengo udako aizea?  
Itzalpechoetako gozo eta mea?  
¿Non lekuan lekuan bañuen echea,  
Osasunaz jartzeko gaiso dan tristea?
- Chom.* Premiñ, baita ditugu asko ikusgarri,  
Palankan nagusiak, onenak dantzari,

- Zenbait ditugun berriz emen pelotari,  
Mundu danak daki ta ez galdetu neri.
- Prem.* Udetan dator onat, argatik jendea,  
Berau dalako baztez parerik gabea;  
Emen da zer jan ona, zuria oyea,  
Ostatuan garbi ta kalean pakea.
- Chom.* Bazter onetan ez da lapurren beldurrik,  
Orretan ez da senti inoiz euskaldunik;  
Ateak egon arren gabetan zabalik,  
Lo egiten da lasa naiz egon bakarrik.
- Prem.* ¿Nola kantatu Chomin emengo gloriak  
Izarrak bezelassen badira ugariak?  
Nai dituenak jakin letu kondairiak,  
Gogoan eukitzeko dira geyegiak.
- Chom.* Milla euskaldun dira andiak gerrari,  
¡O! zenbait ichas gizon, zenbait bertsolari!  
Izkribatzalle asko, onenak kantari,  
Atsegiñ eragiñak mundu guztiari.
- Prem.* Nere adiskidea, iya degu asko,  
Bertsoetan naikoa egin degu gaurko;  
Utzi dezagun lan au beste baterako,  
Kopla obeagoak gorde ordurako.
- Chom.* Benetan jardun degu asko bertsoetan,  
Geiago enuke nai segi gaur onetan;  
Gizona aspertzen da gauza dan danetan,  
Aisago sari gabe badabil kopletan.
- Prem.* Emen bukatzen ditut, Chomiñ, nik gaurkuak,  
Begiak isten dizkit piskacho bat luak,  
Gorputzak bear ditu bere deskantsuak,  
Gabon digula danoi gure Jaungoikuak.
- Chom.* Agur, jende noblea, urrengo artean,  
Bizi zaitezte ongi osasun pakean,  
Ikusten ezpagera beste egun batean,  
Jaunak batu gaitzala zero zabalean.
- Prem.* Oraindikan munduan bilduko algera,  
Pasa dezagun berriz ordu bat ederra,  
Bertsoetan egiñaz gaur degun bezela,  
Antziñako euskaldun garbien antzera.

- Chom.* Ainbat lenen nai nuke au lako eguna,  
Gozatzeko umore bat atseginduna,  
Maizcho bear genduke gaur lako jarduna,  
Bizi dedin Euskara, baita euskalduna.
- Prem.* Bizi dedilla, bizi, Euskara maitea,  
Izkuntza antziñako parerik gabea,  
Berau illtzen bazaigu, joan zan gurea,  
Erdarak digulako jarriko legea.
- Chom.* Euskaldun jayo eta, berdin gera azi,  
Zeren titiaz edan bera degun nasi;  
Mundua dan artean ez dakigun jausi,  
Seme danok batera dizayogun eutsi.
- Prem.* Bizkaya, Gipuzkoa, orobat Araba,  
Nafarroakin emen lau anaya gara;  
Frantziko irurak ta gu biltzen generala,  
Zazpirok bear degu salbatu Euskara.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1893-garren urtean.

